



Anbarrari buruzko kongresua Araban

Duela urte t'erdi, komunikabideetan albiste izan zen Arabako anbarra, erretxina fosila alegia. Orain, berriz, anbarren inguruan datorren urtean Gasteizen egingo den nazioarteko kongresua da prentsa astindu duena. Anbarra eta beronen inklusio biologikoak izango dira kongresuaren gai nagusiak. Anbarraren historia, aurkikuntzak, tratamendu zein kontserbazioa eta, azkenik, Arabako aztarnategia izango dira kongresuan jorratuko diren esparru nagusiak.

Dagoeneko, mundu-mailako hainbat adituk eman dute bertan egongo direnaren hitza, hala nola, New York-eko Historia Naturaleko Museo Amerikarrek David Grimaldi, Berkeley-ko California-ko Unibertsitateko Georges Poinar, New York-eko Anbarraren Ikerkuntzarako Laborategiko Kurt Beck zein Poloniako Lurraren Museo, Errusiako Zientzien Nazio-Akademia eta Parisiko ikertzaileak, beste hainbaten artean. Kongresua urriaren 20tik 24ra bitartean egingo da eta bertan, lehenengo aldiz, aurkeztuko dira Arabako anbarren inguruan jasotako datu zientifiko zehatzak eta aurkikuntzak, batez ere paleon-

tomologia arlokoak, azken hauek izan baitaitezke harrigarrienak. Honezkerok, aztarnategiak mundu-mailakoa dela frogatu du eta, beraz, oihartzuna izaten ari da komunitate zientifikoan.

Planeta urdina sariak

Asahi Glass Fundazioak ezagutzera eman ditu jadanik Planeta Urdina izeneko sarien aurtengo irabazleak. Erresuma Batuko James E. Lovelock ikertzaileari egokitu zaio lehena, urtetan CFCen eragina aztertzen egindako lanagatik; sariak partitzen dituen epaimahaiak gogoratu duenez, bestalde, Lurraren zientziari buruzko GAIA hipotesia ere



James E. Lovelock doktoreak eskuratu du aurtengo Planeta Urdina saria. Lovelock CFCen eraginaz eta ozono-geruzaren egoeraz ikerketa asko egin da; horrez gain, iritzi-zaparrada itzela sorrarazi zuen GAIA Hipotesia postulatu zuen; zeinaren arabera Lurrak berak bere burua kudeatzeko eta iraunarazteko gaitasun berezia duela defenditzen den.

Lovelock-i zor zaio. Talde-lana suspertzeko eman ohi den bigarren saria, berriz, EEBBetako Conservation International erakundeari eman zaio aurtan. Talde honen zeregin nagusia biodibertsitatearen aldeko ikerketa-lanak sustatzea da; halaber, tokian tokiko giza komunitateek ekosistemaren kontserbazioan egin dezaketinari buruz lan itzela egin da Washingtonen egoitza duen erakundeak.


Asahi Glass Fundazioa 1933. urteaz geroztik ari da anitz arlotako ikerketak bultzatzen, bereziki ingurugiroaren kontserbazioarekin loturikoak. 1992. urtean Planeta Urdina izeneko sariak sortu zituen, mundu osoko ingurugiro-arazoez kezkatu izan diren ikertzaileen eta taldeen lana saritzearen.

Australia espazio-portua

Mende bukaerarako Australiak bi espazio-portu izan ditzake. Proiektua bultzatzen ari diren bi konpainien arabera, ingurugiro-inpaktuaren azterketa egitea soilik falta da.

Biek, Asia-Pacific Space Centre-k (APSC) eta Space Transportatin System-ek (STS), jaurtiketa-tokiak aurkitu dituzte: lehenak York pe-

nintsulan eta bigarrenak Darwin-en inguruetan. Bi konpainiek, bestetik, jaurtigailu errusiarrak erabiltzeko asmoa dute: *Soiuz* lehenak eta *Proton M* bigarrenak. Errusiar



jaurtigailuen fi-dagarritasunak kargaren aseguruaren kostua beheratzen lagunduko du.

APSC Estatu Batuetako, Australiako eta Hego Koreako konpainien kontsozioa da eta bere asmoa 1999aren bukaerako lehen jaurtiketak egitea da. Gainera, asteko hiru jaurtiketa egiteko asmoa dute. Kontuan hartu Arianespacek hileko bat egiten duela.

Bi espazio-portuak ekuatoretik 15°-tara egongo dira (Kourou-ko jaurtiketa-batea bakarrik dago gertuago) eta horrek kargak espazioan jartzeko erregai gutxiago behar izatea ekarriko du. STSren arabera, *Proton* jaurtigailuak 7 tonako karga jarri ahal izango du espazioan Australiatik, Kazakhs-tandik jaurtita baino tonak bat gehiago.

